

## **Hezkuntza Sailaren arduragabekeria eta irizpide aldakorren aurrean, ia ikastetxe denek sindikatuok ikasturte amaierarako egindako proposamenaren aldeko hautua egin dute**

**Gaur egin dugun bezala, datozen egunotan ere, ikastetxe bakoitzean aurrez aurreko itzulera osasun bermeekin gauzatzen dela ziurtatzeko adi egongo gara sindikatuok; aldi berean, Hezkuntza Sailari ikasturte hasierako plangintza osoa, zein osasun neurriak eragileekin adosteko galdegiten diogu**

Oso gutxi izan dira gaur, maiatzak 25, aurrez aurreko ikasketak abian jarri dituzten ikastetxeak, eta abian jarri dituztenek ikastalde oso mugatuentzat egin dute, nagusiki errefortzu bat eskatzen duten ikasleentzat edota 2. Mailako Batxilergoko ikasleentzat EBAU azterketaren prestaketari begira. Beraz, esan dezakegu ikastetxe gehienek, hezkuntza sailak ez bezela, sindikatuok pasa den astean Hezkuntza Sailari helarazitako proposamenaren ildotik doazen ikasturte amaierako planteamenduak gauzatzeko hautua egin dutela.

Datozen egun eta asteotan aurrez aurreko ikasketak abian jarriko dituzten ikastetxe gehiago ere izango dira. Eta badirudi, momentuz ditugun datuen arabera behintzat, hauek ere ildo berdina jarraitzeko asmoa dutela.

Edozein kasutan, pasa den Ostiralean adierazi genuen bezala, ikastetxez ikastetxe, aurrez aurreko ikasketetarako zein lanerako itzulera osasun bermeekin gauzatzen dela ziurtatzeko adi egoten jarraitzen dugu sindikatuok; eta hala ez bada, osasuna bermatua ez dagoen ikastetxe horietan osasuna bermatu arte, beharrezko mobilizazio, ekimen eta tresnak jarriko ditugu abian.

Sindikatuok, zein hezkuntza komunitate osoaren gaitzespen eta presioak hezkuntza saila bere hasierako erabakiak aldatzera eraman badu ere, oso larria eta arduragabea izaten ari da ez ohiko ikasturte amaiera honi begira Hezkuntza Saila egiten ari den kudeaketa. Hezkuntza eragileekin adostu gabeko aldebakarreko erabakiak hartzen ari baita etengabe.

Ikastetxe bakoitzaren autonomia aitzakiatzat hartuz, ikastetxe bakoitzaren esku utzi nahi izan du azkenik itzuleraren nondik norakoa erabakitzeko ardura eta pisua. Gaur, oraindik ere ugariak dira ordea beraien itzulera planaren aurrean hezkuntza ikuskaritzaren erantzunik jaso ez duten ikastetxeak, eta beraz, beraien itzulera planak Sailaren oniritzia duenik ere ez dakitenak.

Horrela, Sindikatuok ikasturte amaierara begira adi egoteaz gain, datorren ikasturteari begira, ikasturte hasierarako plangintza, baldintzak, zein segurtasun eta osasun neurri eta protokoloak, langileon ordezkariokin negoziatu eta adosteko galdegiten diogu.

Euskal Herrian 2020ko maiatzak 25ean



## **Frente a la irresponsabilidad y los criterios cambiantes del Departamento de Educación, prácticamente todos los centros se alinean con la propuesta de fin de curso planteada por los sindicatos**

**Igual que hoy, en los próximos días, estaremos atentos a que el retorno presencial en cada centro se lleve a cabo con garantías sanitarias; exigimos al Departamento que acuerde con los sindicatos la planificación de comienzo de curso así como las medidas sanitarias**

Hoy, 25 de mayo, han sido muy pocos los centros que han puesto en marcha los estudios presenciales, y los que lo han hecho, ha sido para grupos de alumnado muy limitados, principalmente alumnos/as que soliciten un refuerzo y/o para el alumnado de 2º de Bachillerato de cara a la preparación del examen de EBAU. Por lo tanto, podemos decir que, al contrario que el Dpto de educación, la mayoría de los centros han optado por realizar planteamientos de fin de curso que van en la línea de la propuesta que los sindicatos trasladamos la semana pasada al Departamento.

En los próximos días y semanas habrá más centros que pondrán en marcha sus estudios presenciales. Y parece que, según los datos de los que disponemos por el momento, tienen intención de seguir la misma línea.

En cualquier caso, tal y como indicamos el pasado viernes, los sindicatos seguimos estando atentos para asegurar que el retorno a los centros escolares, tanto para los estudios presenciales como para el trabajo, se lleve a cabo con garantías sanitarias; en caso contrario, pondremos en marcha las movilizaciones, iniciativas y herramientas necesarias, hasta que haya garantías para la salud de trabajadoras/es y alumnado.

Aunque el rechazo y la presión de los sindicatos y de toda la comunidad educativa en general, han obligado al Departamento de Educación a modificar sus decisiones iniciales, está siendo muy grave e irresponsable la gestión que está realizando de cara a este atípico final de curso. El Gobierno está tomando constantemente decisiones unilaterales no consensuadas con los agentes educativos.

Finalmente, y bajo el pretexto de la autonomía de cada centro, pretende dejar en manos de cada centro la responsabilidad y el peso de las condiciones del retorno presencial. Hoy, sin embargo, siguen siendo numerosos los centros que ni siquiera han recibido respuesta de la inspección educativa ante su plan de retorno, por lo que ni siquiera saben que su plan de retorno cuenta con el visto bueno del Departamento.

Así, además de estar atentos a este fin de curso y a las situaciones derivadas de la irresponsabilidad del Gobierno, exigimos al Departamento de Educación que negocie y acuerde con la representación de las trabajadoras la planificación y las condiciones de inicio del próximo curso escolar, así como las medidas y protocolos de seguridad y salud necesarias.

Euskal Herria a 25 de mayo de 2020

